



10. AKTA

EZOHIKO UDALBATZA, 2005eko irailaren 12an izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

NOIZ: Bi mila eta bosteko irailaren hamabian.

Bilkura buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria bertan dela, ondorengo zinegotziak etorri dira

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro a.
Lucía Querido Noceti a.
Rafaela Romero Pozo a. eta
Juan Manuel Domínguez López j.

EAJ-tik

José Luis Goikoetxea Garmendia j.
José Manuel Anso Martínez j.
Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j. eta
Joaquín Martínez Vidal j.

EA-tik

Miriam Cano Puy a. eta
Mariví Roteta Mujika a. .

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana j. eta
José Luis Mtez. de Espronceda Luiña j.

EB-tik

Jesús M^a García Garde j. eta
Fco. Javier Pombo González j.



Ezohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Aitor Larrañaga Burguera EA-ko zinegotzia bere ezin etorria justifikatu du lan arrazoiengatik. Ez du ezin etorria justifikatu Juan Ramon Gonzalez Medrano j. atxiki gabeko zinegotzia. Halaber, bilkura honetan izan da Karmele Lizaso Ubera andrea, behin-behineko kontu-hartzailea.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

ADMINISTRAZIOA

1.- Jaizkibia Kudeaketarako Sozietatea eratzea.

Bertan dauden zinegotzien gehiengoz - era berean korporazio kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa osatzen dutenak- eta Eledunen Batzordeak 2005eko abuztuaren 18ko irizpenaren bidez proposatuta, Udalbatzak ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Eratzea Estatuko Administrazio Orokorrarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Donostia, Errenteria, Irun, Lezo, Hondarribia eta Oiartzungo udalekin "JAIZKIBIA, S.A." Sozietate Anonimoa, sozietatearen helburua ondokoa hau delarik:

- a) Pasaialdeak, Jaizkibelgo korridore Intermodalak eta Bidasoa Beheak osaturiko geografia eremuan hirigintza eta azpiegitura jarduketak planifikatu eta gauzatzearekin loturiko azterlanak, planak eta proiektuak egitea, bai eta, oro har, hiri berrikuntza integrala, ingurumen eta sozioekonomiaren kalitatea hobetzea eta azpiegiturak garatzea helburu duten beste edonolako jarduerak burutzea ere.
- b) Aurreko paragrafoan zehazturiko lurralde eremuan aipatzen diren jarduerak garatzeko kudeaketa tresnak sortzea.
- c) Parte hartze zuzena Lurralde Ereduaren Eskema Zuzentzailean eta Jardueren Plan Integralean eta horietatik eratorritako ekintzak gauzatzea.

BIGARRENA.- Proiektatutako sozietatearen kapitalaren %4-a harpidetzea, 160.000 euro jarritz, hau da, akzio bakoitzak duen 10 euroko balio nominaleko hamasei mila akzio izendun harpidetuz.

HIRUGARRENA.- Enpresa partaidetzei dagokien nominalaren %25 jartzea sozietatea eratzen den unean, aurrekontuko 1.07.00.853.511.70.01.5005 kontu sailaren kargura.

LAUGARRENA.- Onartzea erabaki honekin batera eranskinean doan Estatutuen Proiektua.

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: HAMAHIRU (13) aldeko boto, PSE-EE (5), EAJ (4), EA (2) eta EB (2) taldeetako zinegotzianak; eta BI (2) abstentzio, PP (2) taldeko zinegotzianak.
- Hitzartzeen atalean ondokoak adierazi dituzte:
 - Mirian Cano Puy, EAko zinegotzian eledunak bere taldeari Irun eta Hondarribia Batzordean sartzeak sorrarazten dion beldurra azaldu du; izan ere, bere sorreran Pasaiako badia berrizatzeko sortu zen batzordea, eta bere taldea hasierako posizio hori baliaraztearen alde ageri da. Azkenik, gogorarazi dio alkate andreari aurreko Udalbatzar batean eskatu zuela Pasaiako Udalak delako Batzordeari helarazitako dokumentazioa helarazteko, baina gaur da eguna oraindik ez dutela ezer jaso.
 - Guillermo Sánchez Berra PPko zinegotzian eledunak bere poza agertu du Gipuzkoako Foru Aldundia Pasaiaren aldeko urratsak egiten hasi delako, baina bere taldeak ez du uste Sozietate Anonimoarena eta bertan Irun eta Hondarribia sartzearena egokia denik, eta horregatik abstenitu egingo dira bozketan.

OGASUNA

2.- Kreditu-aldaketa: Jaiak (kreditu gehigarri moduan).

Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordeak 2005eko uztailaren 29ko irizpenean proposatutakoa aintzat hartuz, Udalbatzak, bertako zinegotzian gehiengoz ondokoa

ERABAKI DU

Udalaren aurrekontuan, hurrengo kreditu aldaketa onartzea, kreditu gehigarriak, hain zuzen ere:

1.07.00.226.454.00.06.2005	Herriko jaiak, Iñauteriak, Olentzero Fiestas patronales, Carnavales, Olentzero	+26.552,75
2.02.00.870.611.00.01.2005	Diruzaintzako gerakina Remanente de Tesorería	+26.552,75

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI (9) aldeko boto, PSE-EE (5), PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotzianak; eta SEI (6) kontrako boto, EAJ (4) eta EA (2) taldeetako zinegotzianak.

- Hitzartzeen atalean ondokoak adierazi dituzte:
 - Jose Luis Goikoetxea EAJ-PNVko zinegotzi-taldearen eledunak adierazi du Sarrera Aurrekontua zati batean bakarrik dagoela egikaritua eta kreditu-aldaketa jaietatik lortzekoak liratekeen diru-sarrera handiagoekin zuritzea ez dela oso konbentzigarria gertatzen.

3.- Kreditu-aldaketa: Pablo-Enea hitzarmena (kreditu gehigarri moduan).

Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordeak 2005eko uztailaren 29ko irizpenean proposatutakoa aintzat hartuz, Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoz ondokoa

ERABAKI DU

Udalaren aurrekontuan, hurrengo kreditu aldaketa onartzea, kreditu gehigarriak, hain zuzen ere:

1.08.00.780.432.00.01.2005	Pablo Enea Hitzarmena Convenio Pablo Enea	4.032,69
2.02.00.870.611.00.01.2005	Diruzaintzako Gerakina Remanente de Tesorería	4.032,69

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI (9) aldeko boto, PSE-EE (5), PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotzienak; eta SEI (6) kontrako boto, EAJ (4) eta EA (2) taldeetako zinegotzienak.
- Hitzartzeen atalean ondokoak esan dituzte:
 - Jose Luis Goikoetxea EAJ-PNV taldeko zinegotzien eledunak adierazi du akordio hau ez dela ongi uztartzen udal kudeaketari eskatu behar zaion gutxieneko arrazoizkotasunaren printzipioarekin.

4.- Kreditu-aldaketa: Pablo-Eneako sarbideen hobekuntza (kreditu transferentzia moduan).

Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordeak 2005eko uztailaren 29ko irizpenean proposatutakoa aintzat hartuz, Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoz ondokoa

ERABAKI DU

Udalaren aurrekontuan, hurrengo kreditu aldaketa onartzea, kreditu transferentzia, hain zuzen ere:

1.08.00.601.511.40.01.2005	2 Torreatze	-620.000
1.08.00.601.511.30.01.2005	1 Pablo Enearako sarbideen hobekuntzak 1 Mejoras acceso Pablo Enea	+620.000

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI (9) aldeko boto, PSE-EE (5), PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotzienak; eta SEI (6) kontrako boto, EAJ (4) eta EA (2) taldeetako zinegotzienak.
- Hitzartzeen atalean ondokoak aditzera eman dituzte:
 - Jose Luis Goikoetxea EAJ-PNV taldeko zinegotzien eledunak aditzera eman du bere garaian dagokion Batzordean aipatu zuela aurreikusitako diru-sarrerara murriztu beharra zegoela hain zuzen beste administrazioek lagundutako finantzatze partida bat ere murriztu egin delako, hots, eremu andeatuetarako Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Departamentuak duen Programaren barrukoa. Gainera, Torreatze Proiektuak duen kontusaila 2004ko azaroaren 25ean hartu zen finantzaziorako Udalbatzar Akordiotik dator. Bere iritzian Torreatzeko obra adjudikatzetik hirugarren kontratista bati dagozkion betebeharrak batzuk eratortzen dira, eta horretarako gero irizten dio ez dela legezkoa, ezta posible ere, delako obrarentzat aurreikusia dagoen kontusaila murriztea, eta horregatik bere taldeak aurka bozkatuko du erabilitako aurrekontu-eragiketekin bat ez datorrelako, eta aldi berean salatu du legezotasun-txosten ganorazkorik ez egotea; halaber, ezinezkotzat jotzen da xedatugabeko saldoan 545.178 euro besterik ez duen kontusailetik 620.000 euro transferitu ahal izatea.
 - Kontu-hartzaile andreak aditzera eman du Arkitektoarekin egiaztapen batzuk egin dituela, eta hortik ez dela segitzen arrazoirik dagoenik aurreikusitako sarreraren murrizketarako; aldi berean aitortzen dute gastuari dagokionez aldea dagoela hura kalkulatzeko Hirigintzako Batzordeko eztabaida hartu iturri gisa edo Ogasuneko Batzordekoa hartu.

5.- Kreditu-aldaketa: Hasierako ekarpena Jaizkibia Kudeaketarako Sozietateari (kreditu gehigarri moduan).

Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordeak 2005eko abuztuaren 31ko irizpenean proposatutakoa aintzat hartuz, Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoz ondokoa

ERABAKI DU

Udalaren aurrekontuan, hurrengo kreditu aldaketa onartzea, kreditu gehigarriak, hain zuzen ere:

1.07.00.853.511.70.01.2005	Constitución sociedad gestora	40.000
2.02.00.870.611.00.01.2005	Remanente de Tesorería	40.000

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: HAMAHIRU (13) aldeko boto, PSE-EE (5), EAJ (4), EA (2) eta EB (2) taldeetako zinegotzianak; eta BI (2) abstentzio, PP (2) taldeko zinegotzianak.

6.- Kreditu-aldaketa: Pasaia-Lezo eskola-garraioa (kreditu gehigarri moduan).

Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordeak 2005eko abuztuaren 31ko irizpenean proposatutakoa aintzat hartuz, Udalbatzak, bertako zinegotzian gehiengoz ondokoa

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Udalaren aurrekontuan, hurrengo kreditu aldaketa onartzea, kreditu gehigarriak, hain zuzen ere:

ESTADO GASTOS		
1.05.00.227.422.00.08.2005	Hezkuntza garraioa Transporte escolar	4.700
ESTADO INGRESOS		
2.02.00.870.611.00.01.2005	Diruzaintzako gerakina Remanente de Tesorería	4.700

BIGARRENA.- Hezkuntza Sailari gastatutako diruaren itzulketa erreklamatzeko konpromisoa hartzea.

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da:
 - Lehenengo puntua bertako zinegotzian aho batez onartu da.
 - Bigarren puntua: HAMAHIRU (13) aldeko boto, PSE-EE (5), EAJ (4), EA (2) eta EB (2) taldeetako zinegotzianak; eta BI (2) abstentzio, PP (2) taldeko zinegotzianak.
- Hitzartzeen atalean, ondokoak adierazi dituzte:
 - Mirian Cano, EAko taldeko zinegotzian eledunaren iritzian Alkate andreak ez zuen bete bozeramaile honekin eta garraioa erabiltzen duten umeen gurasoekin hartutako konpromisoa; hain zuzen ere, esan zigun Udalak bere gain hartuko zuela eguerdietan Lezoko herri-eskolatik Donibanera egin beharreko joan-etorrien gastua. Egia da, dena den, bozeramaile honek, gestio

batzuen bidez, Hezkuntza Ordezkararen konpromisoa lortu zuela, Udalak autobusa ordaintzekotan Hezkuntza Ordezkaritzak berak ordainduko zuela zerbitzuan zaindari bat eramatearen (ezinbestekoa baita) gastua. Konpromiso horiek lortuta, Udalak eta Hezkuntza Ordezkaritzak sinatu behar zuten akordioa.

- Lore Suarezren iritzian, Donibaneko haurren egoera berezia Hezkuntza Sailak hartutako erabakiaren ondorioa da. Bere ustez ezin da esan ez garela konpromisoa betetzen ari, oraindik ez duelako Hezkuntza Ordezkaritzak jakinarazi autobuserako zaintzaile bat izendatua dagoenik. Azkenik, aditzera eman nahi du pasaitarrek ez dutela zertan bi aldiz zergak ordaindu, hezkuntzaren zerbitzua Euskal Autonomi Erkidegoaren eskumena denez gero.
- Guillermo Sanchez Berra, PPko zinegotzi taldearen eledunak Eusko Jaurlaritzaren erantzukizun-eza deitoratzearekin batera, Udala hartzea ez dagozkion akordioak hartzea behartzen duena, iragarri du bere taldeak aldeko botoa emango duela erantzukizuna erakusteko, Jaurlaritzari dirua itzultzeko eskatzen dionean egingo duen bezala.
- Udal Idazkariak azaldu du eskola-garraioa ez dela udal eskumena, Eusko Jaurlaritzarena baizik. Udala mugatzen da “Hezkuntza Administrazioarekin elkarlanean aritzera Ikastetxe Publikoak eraiki eta mantentze-lanetan” apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Tokiko Araubidea arautzen duten Oinarrietako 25.2 n art.. Nolanahi ere, Korporazioari honako aholkua ematen dio: Udalak ez dezala eskola-garraioa kontratatu; izan ere, jarduera hori udalaren erantzukizun zibileko aseguruaren estalduratik kanpo geratuko litzateke, hortik segi daitezkeen ondorio larriekin, eta hortaz bidezkoena delako kopuru hori diru-laguntza gisa gurasoei ematea edo bestela Hezkuntza Sailari eskaintzea izango litzateke, kontratazioa eurek egin dezaten.

7.- Kreditu-aldaketa: Ontzi Tradizionalen I. Topaketa (kreditu gehigarri moduan).

Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordeak 2005eko abuztuaren 31ko irizpenean proposatutakoa aintzat hartuz, Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoz ondokoa

ERABAKI DU

Udalaren aurrekontuan, hurrengo kreditu aldaketa onartzea, kreditu gehigarriak, hain zuzen ere

ESTADO GASTOS		
1.07.00.481.111.00.03.2005	Tradiziozko Itsasontzien I Topaketa I Encuentro de Embarcaciones Tradicionales	12.000
ESTADO INGRESOS		
2.02.00.870.611.00.01.2005	Diruzaintzako Gerakina Remanente de Tesorería	12.000

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI (9) aldeko boto, PSE-EE (5), PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotzienak; eta SEI (6) kontrako boto, EAJ (4) eta EA (2) taldeetako zinegotzienak.

8.- Indarreko aurrekontuan (2005) aurreikusita dagoen mailegua kontratatzea.

Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordeak 2005eko abuztuaren 31ko irizpenean proposatutakoa aintzat hartuz, Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoz ondokoa

ERABAKI DU

2005eko Aurrekontuan aurreikusitako inbertsioetarako kreditu-eragiketa hitzartzea. Honako hauek dira ezaugarri nagusiak:

*Kreditu entitatea: LA CAIXA

*Zenbatekoa: 3.485.327 €

*Amortizazio-epea: 15 urte

*Gabealdia: 2 urte

*Interes tasa: urteko EURIBORa + %0,05ekoa
(gabealdian: urteko euriborra + 0,20%)

*Komisioa: %0koa

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI (9) aldeko boto, PSE-EE (5), PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotzienak; eta SEI (6) kontrako boto, EAJ (4) eta EA (2) taldeetako zinegotzienak.
- Hitzartzeen atalean, ondokoak adierazi dituzte:
 - Jose Luis Goikoetxea EAJ-PNV zinegotzi-taldeko eledunak adierazi du aurkako botoa emango duela. Prestatu zen bezala prestatuta Aurrekontuaren aurka dago, eta hortik sortu den defizitarena, eragiketa honen bidez estali nahi dena.

9.- Ekonomia eta Finantza Plana onartzea.

Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordeak 2005eko abuztuaren 31ko irizpenean proposatutakoa aintzat hartuz, Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoz ondokoa

ERABAKI DU

Alkatetzak aurkeztutako 2005-2008 urteetako Plan Ekonomiko-Finantzarioa onartzea:

CAPÍTULOS DE INGRESOS	2004 Liquidación	PREVISIONES INGRESOS			
		2005	2006	2007	2008
1.- IMPUESTOS DIRECTOS	3.036.708	3.075.750,00	3.169.522,18	3.250.835,74	3.329.873,46
2.- IMPUESTOS INDIRECTOS	425.118	814.525,00	1.221.063,74	353.625,50	365.578,04
3.- TASAS Y OTROS INGRESOS	2.611.548	2.464.165,00	2.946.354,06	3.045.940,83	3.148.893,63
4.- TRANSFERENCIAS CORRIENTES	9.896.125	10.378.316,00	10.683.196,94	11.044.288,99	11.417.585,96
5.- INGRESOS PATRIMONIALES	89.331	76.330,00	0,00	0,00	0,00
6.- ENAJENACIÓN DE INVERSIONES		551.250,00	0,00	0,00	0,00
7.- TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	1.786.735	3.961.354,00	156.003,00	0,00	0,00
8.- ACTIVOS FINANCIEROS	35.420	0,00	0,00	0,00	0,00
9.- PASIVOS FINANCIEROS		3.485.327,00	0,00	0,00	0,00
INGRESOS TRIBUTARIOS CAP.(1/3)	6.073.373,59	6.354.440,00	7.336.939,99	6.650.402,07	6.844.345,13
OPERACIONES CORRIENTES CAP.(1/5)	16.058.829,11	16.809.086,00	18.020.136,92	17.694.691,06	18.261.931,09
TOTAL OPERACIONES EJERCICIO CAP.(1/9)	17.880.983,93	24.807.017,00	18.176.139,92	17.694.691,06	18.261.931,09

CAPÍTULOS DE GASTOS	2004 Liquidación	PREVISIONES GASTOS			
		2005	2006	2007	2008
1.- GASTOS DE PERSONAL	6.833.296	7.324.609,00	7.572.180,78	7.828.120,49	8.092.710,97
2.- COMPRAS DE BIENES Y SERVICIOS	4.990.812	6.820.958,00	5.518.788,46	5.681.163,44	5.849.026,69
3.- GASTOS FINANCIEROS	113.083	190.200,00	200.272,96	178.915,43	159.653,77
4.- TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.457.131	1.584.222,00	1.324.664,84	1.324.664,84	1.324.664,84
6.- INVERSIONES REALES	4.270.517	7.906.437,00	2.491.747,88	1.706.756,86	1.983.151,83
7.- TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	85.843	212.591,00	55.000,00	55.000,00	55.000,00
8.- ACTIVOS FINANCIEROS	37.420	0,00	0,00	0,00	0,00
9.- PASIVOS FINANCIEROS	880.129	768.000,00	1.013.485,00	920.070,00	797.723,00
OPERACIONES CORRIENTES CAP.(1/4)	13.394.322,87	15.919.989,00	14.615.907,04	15.012.864,20	15.426.056,26
TOTAL OPERACIONES EJERCICIO CAP.(1/9)	18.668.232,87	24.807.017,00	18.176.139,92	17.694.691,06	18.261.931,09

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da: BEDERATZI (9) aldeko boto, PSE-EE (5), PP (2) eta EB (2) taldeetako zinegotzienak; eta SEI (6) kontrako boto, EAJ (4) eta EA (2) taldeetako zinegotzienak.
- Hitzartzeen atalean, ondokoak adierazi dituzte:
 - Jose Luis Goikoetxea EAJ-PNVko zinegotzi-taldeko eledunak adierazi du aurkeztu dena ez dela ez plana, ez ekonomikoa eta ez finantzarioa. Paper bat da bi orriko memoriarekin eta proposatutako planaren barneko tolesturak ez datoz bat Alkatetzaren Proposamenaren karatularekin. Bestalde, bere ustez bere garaian esan zuen 2005. urte honetan aurrezki garbi



negatiboa zegoela baina ez zitzaiola jaramonik egin, eta orain arrazoa ematen zaionez gero galdetu du Aurrekontua legez onartu zen.

Gastuen II. atalari dagokionez, non datorren urterako murrizketa aurreikusia dagoen, edo beste hutsegite bat da, edo bestela alkate andreak bide garbiketako gaia berraztertu egin du. Gastu bereziak ere ez dira kontuan hartu, lanpostuen beste balorazio bat egiteko diru-funtsa esaten zaiena.

Azkenik aditzera eman du, egiten dituen hitzartzeei inork erantzuten ez dienez, taldean aztertzen ari direla batzordeetara-eta joan ala ez, ikusita jarrera nolakoa den, hori gutxiespenari egotzi ala zabarkeriari ez dakitela.

Eta, beste gairik ezean, 10:00etan batzarra amaiturik, nik, idazkariak, alkate andrearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.